



# KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria  
2025eko abendua - 266 zkia.



Nagore Arrizabalaga Artime

# Gaitasunak mugen gaineratik

DIKEA, AMAITZEKO BIDEAN • ARANTZAZUTIK MUNDURA, EUSKALTZALEON GARAIA DA  
BASERRIAK ERRENTAN: DIRUTAN BAINO JENEROTAN NAHIAGO  
GABONETAN ERE EUSKAL PRESOK GOGOAN

# Gabon Zoriontsuak

*Itxi begiak*

*Eskatu desio bat*

*Gurea zuretzat*

*Osasuna azaleko poro guztietatik*

apain



**ATERPE**

JABETZA-ELKARTEEN KUDEAKETA KOOPERAZIOA

## KOMUNITATEEN GESTIOA

GARDENTASUNA, HURBILTASUNA ETA KONFIANTZA

✉ [aterpe@aterpe.eus](mailto:aterpe@aterpe.eus)

☎ 94 678 00 30

☎ 614 07 95 30

📍 Erribera 22 behea  
Ondarroa (Bizkaia)

## Osasuna

### OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak.....	943 46 11 11
Anbulatorioa.....	943 60 43 00
DYA zentrala.....	943 46 46 22
Mendaroko ospitala .....	943 03 28 00
Alzheimer elkarteak .....	943 29 71 18

### Botikak

Lasuen-Elezgarai .....	943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz .....	943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi .....	669 26 22 01
Hiart Burgoa .....	667 33 88 90
Mikel Lekunberri Alberdi (Eibar).....	943 20 42 30

## Udala, zerbitzuak...

Udaletxea .....	943 60 32 44
Udaltzaingoa .....	943 60 70 48 / 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea .....	943 19 50 81
Anai Arte bulegoa .....	943 60 42 47
Anai Arte taberna .....	943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza .....	943 60 38 71
Eguneko Zentroa .....	943 60 38 71
Turismo Bulegoa .....	943 60 33 78
Bake epaitegia .....	943 60 70 49
Kiroldegia .....	943 60 31 75
Liburutegia .....	943 60 41 82
Miruaitez pilotalekua .....	943 60 41 91
Ur Kontsorzioa .....	943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak .....	943 70 07 99
Posta zerbitzua .....	943 60 30 44
Parrokia .....	943 60 39 87

## Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola .....	943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea .....	943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua .....	943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua .....	943 60 71 37
Udal Euskaltegia .....	943 60 30 94
Udal Musika Eskola .....	943 60 37 80
Haurreskola publikoa .....	943 60 41 19

## Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia .....	638 67 23 83
Lurraldebus .....	900 30 03 40
Pesa Autobusak .....	900 12 14 00
BizkaiBus .....	902 22 22 65
EuskoTren .....	944 333 333
Loiuko Aireportua .....	905 50 50 05

## ETXE BAT NORBERARENA

Garai batzuetan urrutiko arazotzat ikus zitekeen, baina pixkanaka iritsi da geurera ere. Gizartearen kezka nagusiak jasotzen dituzten inkesta guztietako rankingetan azaltzen da etxebizitzarena. Euskal Herriko hiriburu guztiek urteak daramatzate etxebizitzaren arazoaz ohartarazten, prezioen igoerak salatzen, turismoaren gehiegikeriaren ondorioak ikusarazten. Donostiatik ihesi etorri nintzen ni Mutrikura Unibertsitate ondorengoko urte batzuk lagunekin han alokairuan bizi ostean. Alokairuaren prezioak zero-muga ukitzen zuen garai haietan, Mutriku bizigarriagoa zen oraindik.

Hala ere, azken aldian ikusi ditut kuadrillako eta lagunak alokairuko pisuen bila herrian. Gazte izateagatik dirulaguntzak salbatu ditu eta ahalbidetu die ia gehienetan etxe batera sarrera, baina gazte termino gero eta estiratuagotik kanpo berehalaxe geratuko garen honetan, nola eutsi oinarriko eskubide horri. Bide batez esan, dirulaguntzarena ere maiz izan ohi dela irtenbide tranpatia, alokairuan dagoenaren laguntza erabili ohi dutelako alokatzaileek prezioa igo eta dirulaguntzaren zenbatekoa etxejabeek eskuratzeko, horrela biek irabazi omen.

Pribilegioak eta baliabideak ez dira berdinak nire lagunaren artean ere, eta batzuek estuago eta besteek lasaiago eutsiko diote alokairu edo jabetzan duten etxeari. Jakina, asko izango dira herrian nire gertukoek gain, alokairua lortzeko zailtasunekin itota dabiltzanak, izan beraien jatorri, erlijio, bizi ibilbide eta abarreatatik etxebizitza bat lortzeko zailtasun gehiago dituztenak. Ez soilik diru faltagatik, baita bost urtetarako alokairurik egin nahi ez dietelako ere (badaezpada, badakizu), edo nahiago dietelako herriko seme-alabei alokatu, edo dirulaguntza bat jasotzea ez delako berme nahikoa zure hileroko alokairua jasoko duzula bermatzeko.

Eta zer nahi duzue esatea, niri bihotza uzkuratzen zait desokupen iragarki bat edo Securitas Directeko pegatina bat ikusten dudan aldiro. Oinarriko eskubide batekin etekina ateratzea nahikoa ez, eta gainera etsaia beste nonbait dela sinestarazi nahi digute. Baina gehiengoaren kezka ez da erabiltzen ez duen etxe horretan okupak sartzeari; ordaindu dezakeen, eta urte osorako, eta ahal bada denbora luzeagorako, alokatuko dieten etxe bat lortzea baino. Inbertsiorako tresna hutsetik harago, bizitzeko espazio dira etxebizitzak, eta hala zaindu behar ditugu, bestela akabo.

Argitaratzailea

**Karenka Komunikazio Elkarteak**  
Barrenkale 12, behea  
20830 Mutriku

Tel. 635 748 393

e-posta [aldizkaria@kalaputxi.eus](mailto:aldizkaria@kalaputxi.eus)

Webgunea: [www.kalaputxi.eus](http://www.kalaputxi.eus)

Bloga [www.kalaputxi.blogspot.com](http://www.kalaputxi.blogspot.com)

Laguntzailea **Mutrikuko Udala**

Kolaboratzaileak

**Josu Larrañaga,**  
**Inhar Mutiozabal**

Tirada **2.200 ale**

Lege Gordailua **SS-787/01**

ISSN **1579-4792**

Inprimategia **EUSKALINPRI**

Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak  
Mutrikuko Udalaren dirulaguntza  
jasotzen du:



**Mutrikuko Udala**



astelehenetik ostiralera							
<b>DB03</b>	<b>LEKEITIO - DONOSTIA</b>						
Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00		
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25		
<b>Mutriku</b>	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30		
Donostia	7:55	11:30	14:30	19:30	---	Unibertsitatetik	
<b>DB03</b>	<b>DONOSTIA - LEKEITIO</b>						
Donostia	8:00	11:00	14:30	18:00	20:30	Unibertsitatetik	
<b>Mutriku</b>	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20		
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05		
<b>DB04</b>	<b>ONDARROA - MALLABIA</b>						
<b>Mutriku</b>	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45	
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55	
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15	
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---	
OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: 23:25; 01:15.							
<b>DB04</b>	<b>MALLABIA - ONDARROA</b>						
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05	
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:10	22:15	
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:20	22:30	
<b>Mutriku</b>	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40	
OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: 00:25. (Eibarren -25 min.)							
<b>DB05</b>	<b>MUTRIKU - ZUMAIA</b>						
<b>Mutriku</b>	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	
Deba	6:40	9:45	11:40	13:40	16:40	18:40	
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10	
<b>DB05</b>	<b>ZUMAIA - MUTRIKU</b>						
Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10		
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40		
<b>Mutriku</b>	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25		
<b>DB06</b>	<b>ONDARROA - SORALUZE</b>						
<b>Mutriku</b>	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40
<b>DB06</b>	<b>SORALUZE - ONDARROA</b>						
Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
<b>Mutriku</b>	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak							
<b>DB03</b>	<b>LEKEITIO - DONOSTIA</b>						
Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00			
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25			
<b>Mutriku</b>	8:30	13:00	17:30	19:30			
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:10			
<b>DB03</b>	<b>DONOSTIA - LEKEITIO</b>						
Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30	21:00		
<b>Mutriku</b>	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50		
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35		
<b>DB04</b>	<b>ONDARROA - MALLABIA</b>						
<b>Mutriku</b>	7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	22:15	
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25	
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45	
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---	
LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: 23:25, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55.							
<b>DB04</b>	<b>MALLABIA - ONDARROA</b>						
Mallabia	6:50	7:45	orduro	19:45	20:45	21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
<b>Mutriku</b>	7:55	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55	23:00
LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: 01:10; 03:10; 05:10; 06:10. (Eibarren -25 min.)							
<b>DB05</b>	<b>MUTRIKU - ZUMAIA</b>						
<b>Mutriku</b>	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10
<b>DB05</b>	<b>ZUMAIA - MUTRIKU</b>						
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
<b>Mutriku</b>	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25
<b>DB06</b>	<b>ONDARROA - SORALUZE</b>						
<b>Mutriku</b>	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20	
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40	
<b>DB06</b>	<b>SORALUZE - ONDARROA</b>						
Soraluze	8:40	10:40	12:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00	
<b>Mutriku</b>	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20	

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero		Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
<b>BILBOTIK</b>		7:00	20:00	<b>DonostiaTIK</b>	5:50	7:50	20:50
<b>Eibar</b>	6:14	7:14	21:14	<b>Errekalde</b>	5:59	7:59	20:59
<b>Elgoibar</b>	6:24	7:24	21:24	<b>Orio</b>	6:14	8:14	21:14
<b>Mendaro</b>	6:33	7:33	21:33	<b>Zarautz</b>	6:20	8:20	21:20
<b>DEBA</b>	6:44	7:44	21:44	<b>Zumaia</b>	6:29	8:29	21:29
<b>Zumaia</b>	7:00	8:00	22:00	<b>DEBA</b>	6:43	8:43	21:43
<b>Zarautz</b>	7:08	8:08	22:08	<b>Mendaro</b>	6:52	8:52	21:52
<b>Orio</b>	7:15	8:15	22:15	<b>Elgoibar</b>	7:01	9:01	22:01
<b>Errekalde</b>	7:29	8:29	22:29	<b>Eibar</b>	7:11	9:11	22:11
<b>Donostia</b>	7:38	8:38	22:38	<b>Bilbo</b>	8:20	10:20	23:20

ONDARROA - BILBO			BILBO - ONDARROA		
astelehenetik ostiralera			astelehenetik ostiralera		
	lehena	azkena		lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40	A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25			Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	6:10	20:10	A3915 Durangotik	7:40	21:40
Ondarroatik Bilbora zuzenean: 6:30; 7:30					
jai egunak			jai egunak		
A3916 Ermuatik	6:40	20:40	A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	7:10	20:10	A3915 Durangotik	8:40	21:40

## MANDAZKETAKO ITURRIARI BERE BALIOA AITORTU

Mutrikuko EAJ-PNVk, Mandazketako gunean dauden 1790eko iturriak eta harraskak duten balio historikoa dela eta, antzinako elementu horiek eta bere baitan hartzen dituen ingurua bere onera ekartzea eskatzen dio Mutrikuko udalari.

Mutrikuko EAJ-PNVk eskari bat zuzendu dio Mutrikuko udalari Mandazketako inguruan dagoen 225 urte baino gehiago dituen antzinako iturria bere onera ekar dezan, eta, hala, duen herri ondare balioa aitortu diezaion. Gaur egun, tamalez, bazter utzita dagoen alde zaharrek txokoa da; jatorrizko iturriak ez dagoen arren, badago ura biltzeko harraska.

Udaletxearen atzealdean, frontoirako jaitsieran kokatuta dagoen 1790eko harraska, zalantzarik gabe, Mutrikuren ondare historikoa dugula, diote.

Ezin dugu onartu gure herriaren historian aintzat hartzekoa den zati hori utzikieriaz baztertea. Inguru hori ez dira harriak soilik, gure aurrekoen bizimoduaren lekuko bizia da, eta mutrikuarrek berreskuratu behar dutena, batez ere, belaunaldi berriek jaso dezaten ondoren oinordetzan.

Mutrikuko EAJ-PNVk eskatzen dio udalari ingurua edertuko lukeen horma irudi batez jantzi dezala gune berezi hori. Proposatzen diote, aipatutako iturri eta harraska eusten duen horma erabil dezatela irudia egiteko. Ederra litzatekeela diote, jada joanak diren garaietako argazki zaharrez baliatuta, orduko inguruko bizitza nahiz paisaia agertuko lukeen horma irudi bat egitea; horrela herri oroimenaren txoko bizi eta erakargarria bihurtuko litzateke.

Mutrikuko EAJ-PNVtik adierazten dute alde hori berreskuratzea ondarean, nortasunean eta herri bizitzan irabaztea dela. Gauzak horrela, dei egiten dio udal gobernari proposatutako egitasmoa garrantzizkotzat har dezala, txoko historiko horrek egituraren konponezinak liratekeen kalteak izan aurretik.

### Mutrikuko EAJ-PNV

## SUHILTZAILE ZERBITZU EUSKALDUNA

Pasa den urriaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiak urtea amaitu aurretik 113 lanpostu publiko plaza berri betetzeko deialdia luzatuko duela plazaratu zuen.

Eskainiko diren plaza hauen inguruan, Aldundiak hartu duen eta bereziki arduraz betetzen gaituen xehetasun baten berri ere eman zen: Eskainiko diren lanpostuei ezarriko zaien hizkuntza eskakizunen ingurukoa da gure kezka.

Izan ere, 113 lanpostu horien % 34tan atzeratu egingo da euskara-eskakizunaren nahitazeko izaera, eta, teoriarik, epe bat emango da hori egiaztatzea ahal izateko. Errealitatean, badakigu ezarritako epe horiek ez direla inoiz betetzen.

Praktikan, albiste honek, suhiltzaile zerbitzuari dagokionean, eskaintzera doazen 68 lanpostuetatik 23k derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik ez dutela izango esan nahi du, alegia, euskara jakin beharrik ez dutela izango plaza horiek beteko dituztenek.

Gipuzkoako suhiltzaile zerbitzua Euskal Herrian bere irratik komunikazioetan euskara hutsean lan egiten duen zerbitzu bakarra da. Horretaz gain, ia langileria guztia euskalduna izateak zerbitzu barruko harremanak, bilerak, edota formakuntza-saioak euskaraz egin ahal izatea bermatzen du.

Bestalde, emergentzia zerbitzu bat garen heinean, errealitate horrek herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua euskaraz egin ahal izatea bermatzen du.

Aldundiak erabaki hori hartzeko arrazoia, lanpostu eskaintza publikoetan epaileek hizkuntza-eskakizunen aurka hartutako erabakietan oinarritzen da. Egoera horri aurre egiteko, Aldundiak postu guztien herena euskara-eskakizunik gabekoa izatea "gaitz erdiko" bezala saldu nahi du.

Errealitateak, ordea, modu krudelean erakusten digu lanpostu horietan euskaldunak ez diren langileak sartzen badira zerbitzuak izaera euskaldun hori galduko duela. Izan ere, langile horien eskubidea izango da irratik komunikazioak gaztelaniaz jasotzea, formakuntza eta bilerak gaztelaniaz burutzea eta abar. Gainera, jakina da edozein taldetan (berdin dio zenbatekoa den taldea) euskaraz ez dakien bat egotea nahikoa dela taldearen harreman-hizkuntza gaztelania izatera pasatzeko.

Aldundiaren erabakia, gainera, ez dator bat suhiltzaile zerbitzuak eginiko barne azterketan ateratako ondorioekin, zeinetan zerbitzu euskalduna izatea indargune bezala definitu zen eta izaera hori mantentzeko nahia eta konpromisoa adierazi zuen. Beraz:

- Non geratzen da funtzionarioen euskalduntze-prozesua?
- Non geratzen da herritarrek emergentzia zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea?
- Non geratzen da suhiltzaileen eskubidea euskaraz bizi eta lan egiteko?

Erabat euskalduna den zerbitzu batean atzerapauso handia litzateke hizkuntza errealitate hau aldatzea.

Honegatik guztiarengatik, Aldundiari lanpostuen euskara-eskakizunen inguruan orokorrean eta suhiltzaile zerbitzuari dagokienean bereziki, hartutako erabakiaren inguruko hausnarketa egin dezala eta plaza guztiek derrigorrezko euskara-eskakizuna izan dezatela eskatzen diogu.

### Gipuzkoako suhiltzaileak



# DIKEA, AMAITZEKO BIDEAN

**2** 000 hamarkada hasieran hasi zen Mutrikuko Portuko Plan Berezia garatzen, babes-dikearen eraikuntzarekin. 25 urte beranduago, amaitu gabe dagoen dikea amaitu nahi da, eta Jaurlaritzak eman ditu horretarako lehenengo urratsak. Horiek mutrikuarroi azaltzera etorri ziren Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Iragarri zutenez, dikea 27 metro luzatuta amaituko da. Batzuentzat gehiegi; beste batzuentzat, egoki, dikea bukatuko bada.



Babes-dikea gaur egun

Azaroaren 28an Mutrikun izan ziren Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak, Mutrikuko Udalak egindako eskaria aintzat hartuta eta herriari dikearen inguruko berriak agertzen.

Goizean, Amaya Barredo Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua eta Koldo Goitia, Portuen, Itsas Gaien eta Itsasertzaren zuzendaria Portuko Udal Kontseiluan izan ziren; arratsaldean, Leandro Azkue Arrantza, Portu eta Itsasertzeko sailburuordea eta Koldo Goitia zuzendaria udaletxean. Goizean udal ordezkariak aurkeztu ondoren, arratsaldean saio berezi irekian parte hartu zuten Babes-dikea sendotzeko eta bukatzeko lanak zertan izango diren mutrikuarrei azaltzeko.

Alkateak ireki zuen saioa, saio berezi haren iturria gogoratu: 2024 urtean Babes dikearen eta dikeak babestutako eremuaren inguruko gogoeta prozesua burutu zen, aurrena udaleko hiru alderdiek adostasunak batuta, jarraian eragileekin harremanak eginda, eta ondoren Eusko Jaurlaritzarekin bideak irekita.

Jaurlaritzako ordezkariak, Mutrikura etorrita, mutrikuarrei zuzenean agertu nahi izan zieten dagoeneko 20 urtetan amaitu gabe dagoen dikea amaitzeko proiektua. Leandro Azkue sailburuordeak adierazi zuen «2024 urtean abiatutako legealdi hasieratik Mutrikuko dikea amaitzeko gaia mahai gainean izan da. Gatazka eta haserre asko sortu duen gai historikoari amaiera ahalik eta modu egokienean eman nahi diogu, aurreko legealdian Jaurlaritzak hasitako asmoari jarraipena emanaz».

Jaurlaritzak Udalak egindako eskaria jaso zuenean, proiektua amaituta eduki arte zain egoteko eskatu zuen, zer aurkeztu eduki arte. Eta proiektua onartuta izan dutenean, hartutako lehenengo lana Mutrikura etorri eta mutrikuarrei horren berri ematea izan da.

Koldo Goitia zuzendariak hitza harturik, proiektuaren inguruko azalpenak eman zituen, eta lehenengo momentutik utzi zuen argi: Plan Berezian aurreikusita dauden ondorengo faseak ez dira burutuko, adibidez, piztina zaharra estaltzearena. Plan Berezi berri bat egin beharko da portu eremuan zer landu eta egin ahal izango den definitzeko.

Proiektuaren helburu behinena «pilatuta dagoen materiala aprobetxatuz, dikeari bukaera egokia eta txukuna ematea» izango dela adierazi zuen zuzendariak. «Dikea gehiago luzatu gabe amaitzea nahi bazen ere, arrazoi teknikoak kontuan hartuta, egungo tokitik 27 metro luzatuta errematatuko da» gaineratu zuen.

Zuzendariak, maila teknikoan sartu gabe, proiektuaren inguruan emandako azalpenak, laburtuta:

## Asmoa

Dikea amaitzea eta sendotzea.

## Zergatik da beharrezkoa obra amaitzea

- Dikeak gaur egun dituen kalteak konpondu beharra, bere funtzioa ondo betetzeko.
- Portuko itsas-sarbidea hobetuz nabigazioari eta portuko sartu-irtenari segurtasuna emateko.
- Obra amaituta sortuko den espazioan herritarrentzako aukera berriak sortzeko.
- Portu barruko asaldura, agitazioa, murritzeko.

## Mutrikuarrentzako onurak

Obra amaitzen denean, dikea bukatuta eta inguruko espazioak txukunduta, herritarrentzako segurtasuna eta lasaitasuna lortuko da, eta, gaur artean obra eremua izan den tokian, espazio berriak eskuratuko dira mutrikuarren eta bisitarien aisialdirako. Espazioa Jaurlaritzarena izanda ere, Udalarekin hitzarmenak egin daitzeke espazio horiek Udalak antolatzeko.

## Nola egingo da

Gaur egungo egoera erreferentzia hartuta, 27 metro luzatuko da, lehenengo eginda dagoenaren zati bat desmuntatu eta ondoren berreraikita.

Azaroan Gobernu Kontseiluak onarpena eman dio Dikearen obra egiteko espedienteari legezko urratsak emanda. Obra-proiektua onartuta eta beharrezkoa den diru-kontsignazioa eginda, urtea amaitu aurretik lizitatzera aterako da. Lizitazioa eginda, 2026ko uda osterara arte ez dira lanak hasiko tokian bertan.




**ALAZNE OPTIKA**



Jose M<sup>o</sup> Altzibar etorbidea 1  
Tel. 943 60 31 54 · alazne.optika@gmail.com

**Gotzon  
arrandegia**  
produktu fresko eta kalitatezkoak

Gotzon Eizagirre  
Felix Txurruka, 2 · Tfnoak: 943 60 46 02 / 943 60 36 59



Babes-dikea amaitzeko proiektua



Gaur egungo egoera



Etorkizuna (Kalaputxik sortua)

### Lizitazioa, labor

Aurrekontua: 11,4 milio euro

Iraupena: 19 hilabete

Obra hasiera: 2026ko iraila, Galbaixo jaien ostean

Azalpen horiek eman ondoren, hainbat irudi-muntaia agertu zituzten gaur egungo egoera eta dikearen amaierako egoera konparatzeko. Batetik, dikearen luzera eta tamaina erakutsi zen; bestetik, obra bukatuta sortuko diren espazioetan balizko erabilerak islatu zituzten.

### HERRITARREN HITZAK

Dikea bukatzeko pausuen azalpenak eman eta gero, hainbat herritarrek beren usteak, iritziak eta ekarpenak agertu zituzten, Jaurlaritzako ordezkariak entzun, jaso eta abiatu den prozesuan kontuan hartuak izateko esperantzan. Zuzendariak, baina, adierazi zuen proiektua itxita eta onartuta dagoenez, ekarpenak ezin izango direla barneratu. Gaineratu zuen itsas-eremuan beste agintaritzak batzuek dutela erabakia.

Labur, herritarren aldetik adierazitako ideia nagusiak:

#### Kostu handia

Orain dikea amaitzeko erabiliko diren 11,4 milioi euroak aurretik gastatu denarekin dirutza izugarria dela, eta diru publiko hori beste modu batean erabiltzea hobe zela.

#### Tramitazioa eta proiektua

Tramitazio iluna izan duela eta, espedientea eta proiektua ikusgai jartzeko eskaria egin da. Zalantza egin da tramitazio ambientalak zuzen eginda egongo ote den.

#### Zergatik luzatu behar

2024 urtean herrian egindako parte hartze prozesuan dikea ez luzatzea adostu zen herri mailan. Zergatik ez amaitu dikea dagoen tokian?

#### Itsasoa harrotu

Dikearen muturraren eta Alkolea muturraren arteko itsas-espazioan ura harrotu egiten da, lehengoa baino sakonera txikiagoa dagoelako egindako betelanan eta Zumaiako bokaletik ekarritako harearen ondorioz. Dikeak emango duen babesa betelanak ez ote zapuztuko.

### Dike ingurua eta portua txukundu

Moila zaharretik dikeraino dauden hamar lur motak txukundu eta portuari ikusgarritasuna eman.

### Portuko Plan Berezia

Gaia dikea izanda ere, dikeak babestuko duen eremuan egin ahal izango diren jarduerak egin ahal izateko Portuko Plan Berezia egin behar dela, eta hori idazten hasteko lehenbailehen.

### Kofradia zaharra

Diketetik aparte, baina portuko bihotza izan daitekeen Kofradia Zaharra berritzeko eskaria.

### Igerirako tokia

Danborraren eta dikearen artean eskailerak eraiki bainuak errazteko, eta segurtasun neurri moduan; besterik ez bada, moila berritik danborrera dagoen balizajea ipinita.

Egindako ekarpenei erantzunez, Koldo Goitia zuzendariak adierazi zuen hartutako erabakia lege-babesarekin hartu zela, eta egindako proiektuan dikea 27 metro luzatuta amaitzeko jaso bazen, dikea modu egokian, seguruan eta funtzionalean amaitzeko beharrezkoa zelako jasoko zela. Gaineratu zuen diru askoa ala gutxi, diru horixe beharko dela dikea amaitzeko, eta Jaurlaritzak ondo erabiltzat emango duela.

## KOFRADIA ZAHARRA

2017ko uztailaren 5ean erre zenetik, itxita egon da Kofradia zaharra, moila puntara iristeko bidea ere moztuta egon zen. Ordutik, Kofradian zer egin eta nola egin zehazteko, proiektua egin zen eraikina berrerrabiltzeko, baina egin beharreko inbertsioa handiegia zen.

Zuzendariak adierazi zuenez, aurten proiektu berri bat egin du Jaurlaritzak, eta, dirudienez, Kofradia Zaharra berriz ere herritarren zerbitzura jartzeko modua hurbilago dago. Proiektu berriaren arabera, honako erabilerak aurreikusten dira: beheko solairuan, ostalaritza erabilera; lehenengo solairuan, ostalaritza erabilera eta Bentalekua museoa; bigarren pisuan Jaurlaritzaren administrazio-erabilerako bulegoak.



## GAZTAÑETA AUZOA HURBILAGO

Aspaldiko nahia zuten Gaztañeta auzoko bizilagunek erdigunearekin irisgarritasuna hobetzearena. Hasieran uste zena baino denbora gehiago behar izan bada ere, azkenean amaitu da obra eta orain bai, orain herrira jaitea ez da izango bueltarekin sufroimendua ekarriko duen ariketa. Lehenengo Alzibar kaleko igogailua eginda, eta orain Gaztañeta kalekoa eginda, asko dira mugikortasunean eta irisgarritasunean irabazi dutenak. Gainera, Musika eskola paretik gora, bi espazio berri ere sortu dira igogailuarekin batera, auzotarrentzat egoteko leku berri bat izango dena. Auzokoentzat ez ezik, erabiltzaile ugari aprobetxatuko dute igogailua goiko aldera joateko: Musika eskola, Ikastola, hilerria... Denontzat ederra.



## BUKATU DU DENBORALDIA RAFA URANGAK

Bukatu du Rafa Urangak 2025 denboraldia. Azaroaren 16an Nafarroako «Circuito de Navarra» Espainiako txapelketarako puntuagarriak ziren bi lasterketetan bostgarren postu bi lortu zituen, eta Euskal Herri mailan txapelkun. Bestalde, azaroaren 29an «Barcelona-Catalunya» zirkuituan korritutako lasterketan seigarren postu orokorra lortu zuen, eta Euskal Herri mailan, berriz, bigarren postuan bukatu zuen. Sailkapen honek kontuan edukita Euskal Herriko 2025 txapelketako bigarren postua lortu du. Ipar eremuko *Evo 750-1100* kategoriako txapelketako txapelkun eta Catalunya *Open-Evo 750* kategoriako txapelkun izatea ere lortu du Mutrikuko gidariak. Zorionak!!



## LASTER SATURRARANGO HAITZAK IKUSGAI

Zientzia, teknologia eta artea uztartzen dituen proiektua jarriko du ikusgai Antxon Uskola Urruzunok Zabilgo erakusketa aretoan, urtarrilaren 25ean eta 26an. Saturrarango haitzak izeneko proiektu honek Saturrarango eraketa geologikoa aztertzen du. «Formazio geologiko hau bere sekuentzia estratigrafiko apartagatik nabarmentzen da, non lutitazko eta hareharrizko txandakako geruzek duela 100 milioi urte inguruko sedimentu-prozesuak erregistratzen dituen». Ondarrutarrak uztailean jarri zuen ikusgai Arrigorri hondartza eta Saturrarangoa lotzen dituen pasealekuan, baita Ondarroako udal erakusketa aretoan, hain zuzen ere herriko jaien egitarauan barne. Oraingoan, berriz, proiektua Mutrikura ekarriko du egileak. Adierazi digunez, «harkaitz-egitura horren antolamendua ulertzeko izan dudan beharra izan dut abiapuntua». Horrela, «Geologiaren, artearen eta topografiaren arteko elkarriketa baten bidez bolumenen, geruzen eta denbora-dinamiken interpretazio berritzailea sortzea bilatzen da proiektu honetan».



DABERE DABERE

**PINTXOAK  
RAZIOAK  
BOKATAK**

Auzoan Aldapa 5  
MUTRIKUA

tel: 943 60 42 03

hitza

herriaren informazioa  
herriaren hizkuntzan  
herriaren zerbitzuan

Ritmo Navidad

Mutrikuko gabon abesiu zabarrak

Orra bor goian e txi a jo dai gun a ti a... Orra bor goian e txi a jo dai gun a ti a...

Gri zo na ben ta na ra ne kez ir te tzi a-n-- gri zo na ben ta na ra ne kez ir te tzi an--

Dontzella bat daukat nik	Semea eta dontzella
Neurekin batian,	Nola litzateke
Dontzella bat daukat nik	Semea eta dontzella
Neurekin batian,	Nola litzateke.
Semetxo bat daukana	Inbustero faltsuok
Bere sabelian n.	Ortikan zoazte e.
Semetxo bat daukana	Inbustero faltsuok
Bere sabelian.	Ortikan zoazte.

## GABON KANTA

“Orra hor goian etxia jo daigun atia gizona bentanara nekez irtetzian Dontzeilla bat daukat nik neurekin batian semetxo bat daukana bere sabelian. Seme ta dontzella nola litzake inbustero faltsuok ortikan zoazte.”

Belengo estalpean bukatu aurretik, Jose Mariarekin gaua pasatzeko leku bila zebiltzala izandakoak kontatzen ditu

## MUTRIKU URTEKARIA, ESPARBELA ELKARTEA ETA MEREZITAKO OMENALDIA

Abenduaren 18an, 19:00etan, MUTRIKU aldizkariaren lehen alea aurkeztuko da Zabiela Kultur Etxean. Hitzordu horretan lehenengoz agertuko da mutrikuarren aurrera aldizkari horren atzean dagoen herri-elkartea: Esparbela Historia eta Etnografia Elkarteak.

Momentu berezi hori aprobetxatuta, ondo merezitako omenaldia egingo dio elkarteak Xabier Basterretxea Txordori. Urte luzez, hango eta hemengo agiriak arakatu ditu Txordok, Mutrikuko historiaren hainbat alderdi argitzeko eta herritarren eskura uzteko helburuarekin.

Abenduaren 20an (zapatua), San Tomas azokan, salgai jarriko da aldizkaria. Eta hala nahi duenak elkartearen bazkide egiteko modua ere izango du.

Santomasak pasatuta, Sabina eta Beristain liburu-dendetan eta Turismo Bulegoan egongo da urtekaria eskuratzeko aukera.

Esparbela elkarteak gure herriko historia eta istorioak jasotzeko eta plazaratzeko asmo sendoarekin jaio da. Izan ere, esparbelak horixe irudikatzen du: “altxorrek” jasotzeko tresna, baina berriz ere “uretan” (herrian) uztea komeni dena. Jon Iriondo Txakartegi ondarrutarrak diseinatutako logoa esparbelaren sarea agertzen da, azken batean Mutrikuzaleen sare bat osatzea bilatzen duelako elkarteak.

Lehen urtekarian Mutrikuko hainbat altxor aurkitzeko aukera izango dute irakurleek. Eta itsasoko eta lehorreko objektuekin ere topo egingo dute.

**MUTRIKU**  
aldizkaria KALEAN!

**MUTRIKU**  
Esparbela Historia eta Etnografia Elkartearen aldizkaria  
1. liburukia / 12. zenbakia / abenduak - 1999

10 EURO

Esparbela

BERISTAIN LIBURU-DENDAN  
SABINA DENDAN  
TURISMO BULEGOAN

Salgai!

Esparbela

## ELKARLANEAN ERALDATZEN

lazko ikasturtean eman zitzaion hasiera psikomotrizitate gelaren eraldaketa proiektuari. Mutrikuko udalaren laguntzarekin eta Izarraitz Lanbide Heziketako esku-lanarekin aurrera eraman dute egitasmoa; egurra proiektuaren baitan. Horretarako, aurrez ikastetxeko irakasleen hausnarketa, Saturran Guraso Elkartearen babesa eta eskola kirolaren gidaritzak izan dute. Parte hartzaile guztien begirada beharrezkoa izan da, eta ilusioz bizi izan dute proiektua. Aurrera begira, eskuartean beste hainbat proiektu dituztela adierazi dute Goizeko Izarra ikastetxeko zuzendaritzak taldekoek. Eta, beste behin ere, Izarraitzeko kideekin horrelako proiektuak burutzea dute asmoa. Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiote Hezkuntza komunitateari egindako lanagatik.

Psikomotrizitate gela berria

GOIZEKO IZARRA IKASTOLA

Hezkuntza komunitateari eskerrak egindako lanagatik.

Herriko haurrek eskertu eta aprobetxatuko dute egin dugun apustua.

**KALBAIXO JATETXEA**

Tel. 943 60 32 56  
MUTRIKU

**LEA-ARTIBAI**

Hileta zerbitzuak - Beilatokia

MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20

ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960  
Mug: 659 879 268

## 2025-2026 MEMORIA ASTEA INSTITUTUAN

Gure herriaren iraganari buruz hausnartu eta ikasteko asmoz, Mutrikuko Institutuko Lehenengo Batxilergoko ikasleok Memoria Astea antolatu dugu abenduaren 15etik 19ra. Helburua izan da ahazturan gelditutako gertaerak eta pertsonak azaleratzea, aitortzea eta gogoeta egitea. Hain zuzen, jendarte bidezkoago eta kontzienteago bat eraikitzeko beharrezko balioak lantzea.

Aurten, sarrera ekitaldi batekin eman diogu hasiera asteari. Patioan “Memoriaren haria” murala margotu dute Arte adierazpeneko ikasleek, eta Mikel Etxabururen Saturrarani buruzko poemaren irakurketa egin da bertan. Era berean, irakurketa batekin batera, oroitu nahi ditugun mutrikuarren izenak irakurri eta itsatsi dira horman ekitaldia borobiltzeko.

Ikastetxean bi erakusketa izan ditugu: lehenengoa, [Gerra Zibila Mutrikun](#) erakusketa, [Saturrararen Elkartearen](#) eskutik; bigarrena, [Holokaustoaren \(Des\)oroimena](#) erakusketa, [Koma ZKren](#) eskutik.

Gainera, irakasleek eta ikasmaita bakoitzak ekintza eta jarduera desberdinez gozatu ahal izan dute. DBH 1ekoek [Mutriku Gerra Zibilean](#) antzerkia ikusi dute Zabil Kultur Etxean batxilergoko lehenengo mailakoen eskutik. Horrez gain, EHaren historiako ikasleek prestatutako erakusketaren bisita gidatua izan dute. DBH 2koek, berriz, [Holokaustoaren \(des\)oroimenari](#) buruzko erakusketa bisitatu dute, eta Saturrararen inguruko jarduera praktikoa gauzatu. DBH 3koek [Mutrikuko Gerra Zibila](#) ibilbidea egin dute Larangan zehar. Baita Abestien lanketa jarduera praktikoa ere. DBH 4koei dagokienez, [Holokaustoari](#) buruzko tailerrean parte hartu dute, eta [Emakumeen “soldaduska”](#) jarduera praktikoa egin dute. BATXI 1eko ikasleek eta irakasleek, berriz, [“Radio Euskadi irrati klandestino”](#) izeneko hitzaldia izan dute Leyre Arrietaren eskutik, eta [Maravillas Lambertoren](#) inguruko jarduera praktikoa egin dute. Azkenik, BATXI 2ko ikasleak Gasteizen izan dira [1976ko Martxoak 3ko gertaerak](#) ezagutzeko. Era berean, Artearen Historiako ikasleek [“Historiako musak”](#) landu dituzte. Eta Euskara ikasgai, [Euskararen memoria](#) lanketa egin da. Ipar eta Hego Euskal Herriaren euskarak jasandako zapalkuntza ezagutu dute, egungo euskeraren egoeran iraganak izan duen eraginaz jabetzeko.

Horrekin guztiarekin Memoria Asteak aukera paregabea eman digu gure iragana sakonago ezagutzeko eta gaur egungo jendartean justiziak eta oroimenak duten garrantziaz jabetzeko. Gertatutakoa gogoratzea funtsezkoa dela ulertu dugu, horrela bakarrik eraiki baitaiteke etorkizun bidezkoago bat.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu aste honen antolaketan lagundu duten guztiak.

### EHko Historiako ikasleak



## MOILAKO HARROBIA

Azken urteetan arraunak gora egin du herrian, eta horren adibide ditugu moilan batzen diren arraunlari gazteak. Aurreko denboraldian Mutrikuko arraunlariak lan bikaina eginda, arraun talde haundietako begiraleak hasi dira interesa agertzen, eta prest daude fitxaketak egiteko ere. Hori dela eta, urteko azken igandean, Orio eta Arraun Lagunak taldeetako entrenatzaile eta begiraleak Mutrikura etorriko dira neskak arraunean ikustera. Batek daki laster mutrikuarren bat ikusiko ote dugun Kontxan!



## SENDABELARRAK EZAGUTU ETA UKENDUAK EGITEN IKASI

Azaroaren 29an Mutrikuko Baserritarren elkartean jaso zuten Maider Gorritiberearen eskutik sendabelarren ikastaroa. Etxean izan beharko genituzkeen oinarrizko sendabelarren eta ukenduen azalpenak eman zituen mutrikuarrak. Transmisioaren etena sendatu eta berriro abian jartzeko ezinbesteko pausoa izan zen. Topaketari lauretan eman zitzaion hasiera, eta taldekide guztien aurkezpena egin zen. Jarraian, Maiderrek astean zehar bildutako sendabelarren azalpen laburra eman zuen. Alegia, belar horien ezaugarriak azaldu zituen. Horien artean aurkitzen ziren: ilena, erramua, intsusa, asuna edo pasmo belarra. Eta liburuetakoa argazkien bidez lagundu zituen azalpenak “polita izan zen, parte hartzaileek ere belarrak ezagutzen eta erabiltzen baitzituzten. Horrela, beraien ekarpena egiteko aukera izan zuten”. Ondoren, ukenduak prestatzeko ekin zioten eta bi ukendu egiteko prozesua pausoz pauso eraman zuten aurrera: ilena-ukendua eta erramu-ukendua. Belarraren olioekin, esentziekin eta argizariarekin eginak hain zuzen ere “bi ukendu interesgarri eta etxe guztietan izan beharrekoak”. Bukatzeko, etiketak jarri zizkieten zer eta noiz egin zuten jakitea garrantzitsua baita. Eta udaberrirako ere hitz ordua jarri zuten oso gustura aritu baitziren bertaratu zirenak.




## MASPALOMAS

Gure izaera eratzen dute gure nahiek. Izan hasieratik, izan bideko momentu batetik, benetan zerk betetzen gaituen ikusteko gai garenean ezagutuko dugu geure burua. Eta, nahi horren arabera jokatzeko aukera izatean, orduantxe izango gara aske. Tamalez, errealitate horrek etengabe baldintzatzen (eta mugatzen) dizkigu libreak behar luketen gure nahiak.

Maspalomas filmean Vicente ezagutuko dugu, bere lekua jaioterritik urrun aurkitu duen gizon bat. Bizitzaren kolpe batez, hain gustura bizi den lekua utzi egin behar izango du, eta aurrez bizi izandako errealitate hartara itzuliko da berriro ere. Bertan, atzean utzitakoari eta datorrenari aurre egin beharko die, bere izaera inolaz ere galdu gabe.

Bizitza hau geure burua ezagutzeko bide dugu. Behin gure izaera eratuta, bera disfrutatzeko aukerei heldu behar diegu, era kontzientean eta inolako kezkarik gabe. Argi izanda sekula ez dela berandu benetan gustoko duguna egiteko.

*"Nitaz? Zer jakin nahi duzu?"*



### FITXA TEKNIKOA

**Izenburua:** Maspalomas **Urtea:** 2025

**Zuzendariak:** Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregi

**Gidoia:** Jose Mari Goenaga

**Aktoreak:** Jose Ramon Soroiz, Nagore Aranburu, Kandido Uranga, Zorion Egileor, Kepa Errasti, Itziar Aizpuru

**Argazkia:** Javier Agirre Erauso

**Iraupena:** 1 h 55 min

## Bihotza ehiztari bakartia da

Carson MacCullers



*Bihotza ehiztari bakartia da* eleberririk, 30eko hamarkadan kokatuta, Estatu Batuetako hegoaldera garamatza, Depresio Handiak astindutako hiri grisera. John Singer izango dugu istorioaren haria, eta berari jarraika osatuko du McCullersek mikrokosmos moduko bat, gatazka sozialetan oinarrituta. Desegonkortasuna nagusi duen testuinguru ilun horretan, arrazakeria, pobrezia eta tentsio politikoak azaleratuko dira etengabe.

Taberna zuloak, etxe gainpopulatuak eta miseriak irentsitako bizitzek osatutako paisaian, Singerren harremanek gidatuko gaituzte. Harreman horiei esker, eta bereziki bakoitzaren Singerrekiko jarreraren bitartez, ezagutuko ditugu istorioko pertsonaiak. Harremanak liburuaren ardatz izan arren,

ironikoki, liburuaren gai zentrala bakardadea dela esan dezakegu. Singer, gorra izanik ere, helduleku bat behar duten baina harreman sakonik eraikitzeko gai ez direnen entzule leiala izango da, inoiz ahotsik izan ez duten bizitzen lekuko.

Idazlearen lehenengo nobela honetan, zeina hogeita hiru urte zituenean publikatu baitzen, idazkera ederraren bitartez helaraziko zaigu errealitate gordina. Pertsonaia hotz eta arrotzenekiko enpatia sentiaraztea izango da autorearen lorpen handietako bat, irakurlearekin haien frustrazioa eta ezinegona partekatzea. Finean, norberaren bizitzatik ihes egiteko beharrak ezaugarrituko ditu pertsonaiak, eta ezintasun horren itoaldia biziko du, beraiekin batera, irakurleak.

# GAITASUNAK MUGEN GAINETIK

Nagore Arrizabalagak laguntzaile lanetan dihardu Mutrikuko Udalean. Egindako bidea ez zaio erraza izan, ezta eroso ere. Berak dioen bezala, «ditudan gaitasunek mugek baino gehiago balio dutela erakusteko eguneroko ahaleginaren, lanaren eta hobetzeko borondatearen emaitza» jasotzen ari naiz. 24 urterekin, bere familiak eta bidean gurutzatu diren irakasle eta profesionalek haren aldeko apustua egin dutela adierazi du, eta oso pozik agertu da lan-aukerarekin «garen bezala balora gaitzaten».

## Zein izan da zure ibilbidea?

Ondarroako Txomin Agirre ikastolan DBH 4 amaitu ondoren, Elgoibarko institutuan egon nintzen bi urtez ZIP gelan, Zeregin Irakaskuntzako Programa burutzen. Bilbora ere joaten nintzen, Euskal Herriko Down Sindromea Fundaziora, klasean ikasten genuena indartzeko. Ondoren, administrari laguntzaile ikasketak egiten hasi nintzen Bilbon, Fundazioarekin eta Lanbiderekin. Edukiak beti izan ditut egokituta. Lau urte egin nituen; lehenengoa, Begoñan; bigarrena, Deustuko Unibertsitatean; hurrengo biak, Santurtzin. Bilboko Udalerako oposizioak ere prestatu nituen, eta arlo teorikoan 7,65 puntu atera nituen. Praktikak Bilboko hotel batean egin nituen, eta gero Pauso Berriak programan hasi nintzen.

## Eta zer da Pauso Berriak programa?

Ba, adimen desgaitasuna duten pertsonak euren garapen pertsonal eta soziala ahalbidetuko duten lanpostuetan txertatzea bilatzen duen programa bat. Praktikak Mutrikuko Udalean hasi arte egunero joaten nintzen Donostiara, eta lehenago Bilbora eta Santurtzira ere bai. Egunero autobusa hartzea dezente kostatzen da, batez ere neguan eta lehen orduan, bidaia luze egiten delako. Baina, bestalde, garraio publikoan neure kabuz moldatzen ikasteko balio izan didate ibilaldi horiek; izan ere, Bizkaibus hartu behar izan dut Bilbora joateko, metroan joan behar izan dut Bilbotik Santurtzira, Lurraldebus Debara joateko eta han trena hartu Donostiara. Donostian zehar ibiltzeko, berriz, DBus-a.

## Ze lan egiten duzu udaleko laguntzaile lanpostuan?

Bederatzietan hasten naiz lanean. Lehenik, dokumentuak banatzen ditut bulegoz bulego; gero, inprimagailuan orriak kargatzen ditut eta tinten nibelak errepasatu; eta grapagailuak grapak dituen behatu. Hamarrak arte



Nagore fotokopiagailuan orriak sartzen

artxiboa antolatu eta dokumentuak digitalizatzen ditut. Jarraian, egunkariak liburutegira eraman, alfabetikoki ordenatu, eta zaharrak birziklatzera eramaten ditut. Eginkizun horiek eginda, mailegutzako liburuak paketatu eta ostiraletan udaletxera eramaten ditut. Orri-paketeak prestatu, dokumentuak koadernatu, kartelak jartzen lagundu, balio ez duten dokumentuak suntsitu... Eta goiz orduan, pintxo bat hartzen dut lankideekin.

Eguerdiko ordu bata aldera irteten naiz. Asteazken arratsaldeetan Eibarrera joaten naiz, nik bezala lan egiten duten beste lagun batzuekin egoteko eta gertatzen zaizkigun gauzak partekatzen ikasteko.

**ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U**



**ERAIKETAK**

Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938

e-mail: astigarragamutriku@outlook.es

Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

**ARRIETA**  
AUTOZERBITZUA



**Aliprox**

J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

# Ahalegin guztiek dute bere ordaina

## Gustura al zaude?

Bai, udaletxean oso giro ona izaten dugu. Lankideak oso jatorrak dira eta beti laguntzeko prest egoten dira. Niri ere talde-lanean gustatzen zait lan egitea. Jendeak ni naizen bezala ikusten saiatzen naiz, 'etiketarik gabe'.

## Zer eman dizu lan hori izateak?

Asko. Alde batetik, asko ikasi dudalako. Ahalegin eta lan handia egin dut nire gaitasunei balioa emateko eta horiek mugek baino gehiago balio dutela erakusteko. Ahalegin guztiek dute bere ordaina. Etxean ere asko lagundu didate, Josu eta Mirari gurasoek eta Anne ahizpak, eta izan ditudan eta ditudan irakasle eta profesionalak ere bai, noski, Nagore izan nuen lehenengo andereñorekin hasita eta gaur egun nire laguntzailea den Esther arte, oso eskertuta nago beraiei. Udaletxean oso pozik nago, niretzat esperientzia berria izan delako, eta nire lankideentzat ere bai, eta denak oso jatorrak direlako. Ondo konpontzen gara denon artean. Gainera, ez dut egunero autobusa hartu behar inora joateko!

## Jendeak zu nola ikustea gustatuko litzazuke?

Normal, garen bezala, hau da, bakoitza den bezalakoa. Besteek ni nik besteak ikusten ditudan moduan, ez beste modu baten.

## Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Musika entzutea, Ondarroako kiroldegira dantza egitera joatea, aguagymera... Futbola ere asko gustatzen zait, eta udan arrauna, eta Mutrikuko igerilekura eta hondartzara igeri egitera joatea ahizparekin. Ilunabarrak asko gustatzen zaizkit. Asteburuetan Bilboko Fundazioko lagunekin joaten naiz zinemara, boloetara, afaltzera eta karaokera edo hor zehar asteburu-pasa. Edo, bestela, Ondarroan ateratzen naiz koadrilarekin, nire adineko edozein gazte bezala. Asko gustatzen zait musika kontzertuetara joatea;



Nagore fotokopiagailuan orriak sartzen

Zetak, Bulego, Gatiburen agurra, Fito, Dani Martin, La Oreja de Van Gogh... batzuk ikustera ahizparekin joan naiz eta beste batzuk ikustera familiarekin.

## Zer esaten dizute lagunek zure lanaz hitz egiten diezunean?

Erakusteko geure balioa dugula, garenagatik garelara, eta Down sindromea dugulako ez garelara denok jatorrak, maitekorrak, eta balio gutxiagokoak. Pertsona bakoitza den bezalakoa da eta kitto. Nire lagun batzuek lan egiten dute eta oso gustura daude, baina beste askok ez, eta lan duina izatea oso garrantzitsua da, hobeto sentiarazten zaituelako. Enpresa gehiagok kontratatu behar dituzte Down sindromea duten pertsonak. Eman diezagutela aukera bat.

## Nola ikusten duzu etorkizuna? Nolako izatea gustatuko litzazuke?

Mutrikuko Udalean jarraitzea gustatuko litzaidake, eta kanpora joan behar badut, Bilboko Udalean lan egitea gustatuko litzaidake, oposizioak gainditzeko Bilboko gauza asko ikasi behar izan nituelako. Gainera, lagun asko ditut han, eta ez litzaidake inportako Bizkaiko hiriburuan bizitzea, eta San Mamesetik gertu bada, hobeto!

**APALLU**  
ITURGINTZA

Tel.: 600 316 381 - 943 02 98 61  
San Agustín,3 - Mutriku

apallu@apallu.es

www.apallu.es

MUTRIKUKO TANATORIOA

Iriagirre z/g

**Albia**  
EHORZKETA ZERBITZUAK

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78  
943 20 10 95 (24 ordu)

# ARANTZAZUTIK MUNDURA

## euskaltzaleon garaia da

Errotonda, bidegurutzea, moteltzea, etena, minbizia... Azken urteetan hitz sorta hori guztia erabili da euskalgintza askotariko eta zabaletik ezinegon baten berri emateko: euskararen etorkizunak sorturiko kezka adierazteko. Izan ere, datuek, ikerketek eta aurreikuspenek normalizazio eta biziberritze prozesuan atzera egiteko arriskua handia dela agerrarazi dute; beste era batera esanda, duela mendi erdi pasa hasitako Pizkunde zikloa agortu delako zantzuak gero eta nabariagoak dira.

Hori guztia aintzat harturik euskara eta euskal hiztun komunitatea larrialdi linguistikoan gaudela adierazi genuen Euskalgintzaren Kontseilua osatzen dugun eragileok orain urtebete. Aurretik katalanek eta galiziarrek egindako adierazpenarekin bat egin genuen horrela, eta, aldi berean, geure egin genuen mundu aldrebestu honetan ugaritu zaizkigun krisi sistemikoak izendatzeko terminologia. Hikuntza-larrialdia krisi sistemiko horien parte baita, globalizazioaren muturreko aldaera honek eta bizitzaren digitalizazioak eremu guztietan egiten baitu indartsua indartsuago eta zaugarria zaugarriago; hizkuntzen auzian, hizkuntza nagusiak nagusiago eta euskara bezala minorizatuta daudenak oraindik eta ahulago.



Hala ere, azpimarratu genuen larrialdian gaudela adieraztea ez zela lantua jo eta etsitzeko dei bat; aitzitik, euskarari Pizkunde berri bat emateko lehen argi-izpia ekartzea dela. Itxaropenaren txinparta piztekoa.

Euskaldunok, euskaltzaleok, asko dakigu hortaz. Euskaltzaletasuna, muinean, itxaropena baita. Itxaropenak baino ez dezake azaldu XIX. mendetik XX. erako mundu aldaketa hartan Lore Jokoak, Euskaltzaindia edota Eusko Ikaskuntza sortu zuten euskaltzale haien denen ekina. Zaldubirena, Larrekorena, Orixe, Lizardi, Lauaxetarena, eta, hola ez, emakume izateak zailtasunak erantsi zizkien Errose Bustintza, Tene Mujika edota Elbira Zipitriarena. Eta horiekin batera, eguneroko bizimodu txiki baina funtsezkoan milaka erabaki, ekintza eta keinuren bidez

zigor eta gutxiespenei aurre eginez euskarari mundu bat ematen segitu zutenena.

Itxaropenik gabe ezin baita ulertu lehen Pizkunde hura eten zuen olatu totalitario ilunari aurre eginez —Hegoaldean frankismoaren forman hainbeste iraun zuena— euskarari bigarren Pizkunde bat eman dion euskaltzaleen jarduna. Hain zuzen ere, adierazpen hau ez genuen ausaz plazaratu Arantzazun, euskara mundu garaikidera lotu zuen Pizkunde horren aterbe nagusi izan delako baizik; mundua euskaraz pentsatzeko, egiteko, gozatzeko, bizitzeko ekimenen (h)abialeku behinena: Jakin-en emaria, euskara batua, euskarazko irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea, literatura, euskal kantagintza berria, arte eszenikoetako eta plastikoaren proposamen abangoardista eta aldi berean herriari lotuak...

Itxaropenerako dei hori egin dugu berriro Arantzazutik, Pizkunde horren parte izandako hainbat euskaltzale lagun hartuta. Euskaltzaletasunaren itxaropena zabaltzeko deia, euskaltzaelon garaia dela adieraztekoa.

Baina itxaropena ez da zain egotea. Itxaropena euskararen Pizkundeak eragin zituzten euskaltzale horiek denek erakutsi diguten bezala egitea da. Beraz, ekiteko garaia da.

Azken hamarkadetan egindako bideari zintzo begiratu eta ondo zein gaizki egindakoetatik ikasi eta bide berriak abiatzeko. Egungo erronkei kementsu heltzeko.

'K

EUSKALGINTZAREN  
KONTSEILUA

Eta, jakina, euskaltzaletasuna itxaropena ez ezik, mundua ikusteko modu bat da: hizkuntza-supremazismoaren kontrako jarrera bat, hizkuntza berdintasunaren aldekoa —eta, horrenbestez, herri, kultura, hiztun komunitate eta hiztunen berdintasunarekin engaiatua—. Beste era batera esanda, euskaltzale izatea euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde egotea ez ezik, minorizatutako gainerako hizkuntza guztien alde egitea da. Azken batean, justiziarekin, berdintasunarekin eta askatasunarekin sakonki lotzen den ikuspegi bat, errotik demokratizazioarekin uztartzen dena. Mundua hain aldrebes dabilen garaiotan oinarritzko jarrera politiko bat. Arestian aipatu dugu mundua hizkuntza minorizatuena kontra datorrela, baina guk euskara eta gainerako hizkuntza zein kultura minorizatuak ditugu munduaren alde.

Euskararen etorkizuna jokoan dago, eta berriro ere euskaltzaletasuna lehen lerroa ekarri eta euskarari Pizkunde berri bat emateko unea da. Eguneroko milaka erabaki, ekintza eta keinuren bidez, baina ahaztu gabe herritar bakarkakoen jardun horren gainera euskararen normalizazio eta biziberritzeak ezinbesteko dituela erabaki politikoak: ofizialtasuna behar duela euskarak Iparraldean eta Nafarroa osoan, eta hesia jarri behar zaiola Araba, Bizkai eta Gipuzkoan oldarraldi judizialaren bidez gertatzen ari den desofizializazio prozesuari. Are, jauzi bat eman behar dela euskararen aldeko politika publikoetan egungo erronkei aurre egiteko. Hizkuntza-politika anbiziotsu eta sendoa behar ditugu, eta kultura denez euskarak zentzua hartzen duen salda amniotikoa euskarazko kulturaren aldeko politika ausart, sendo eta urrats luzeak dira horren oinarria.

Guztion esku dago horretan eragitea. Abenduaren 27an Bilboko Bilbao Arenan bilduz, elkarrekin arnasa hartuz, isiotu dezagun Pizkundearen lehen txinparta. Euskara euskaltzaleen ekimenak ekarri du gaurdaino. Euskaltzaleen eskutik etorri dira pizkunde zikloak. Egin dugu iraganean eta berriro egitera goaz. Euskaltzaleon garaia da!

## Sinatzaileak

**Idurre Eskisabel** Kontseiluko idazkari nagusia  
**Kontxita Beitia** andereñoen mugimenduko kidea  
**Paulo Agirrebaltzategi** Jakinen sortzaile taldekoa  
**Mari Karmen Garmendia** hizkuntzalaria eta Jaurlaritzako Kultura sailburu ohia  
**Sagrario Aleman** euskaltzaina, helduen euskalduntze-alfabetatzeko aitzindaria  
**Miren Azkarate** euskaltzaina eta Jaurlaritzako Kultura sailburu ohia  
**Anjeles Iztueta** matematikaria eta Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu ohia  
**Edurne Brouard** Korrikaren koordinatzaile izana  
**Mertxe Mujika** AEKren koordinatzaile izana  
**Martxelo Otamendi** Egunkaria eta Berria-ko zuzendari ohia  
**Jakes Bortairu** Iparraldeko euskalgintzako erreferentea  
**Kike Amonarriz** soziolinguista, telebista aurkezlea  
**Xabier Euzkitze** kazetaria, telebista aurkezlea  
**Eñaut Elorrieta** musikaria  
**Lorea Agirre** Jakin aldizkariko zuzendaria  
**Paul Bilbao** Kontseiluko idazkari nagusi ohia  
**Juan Kruz Lakasta** Iruñeko Euskalerrria Irratiako zuzendaria  
**Arantxa Urretabizkaia** idazlea  
**Joseba Sarrionandia** idazlea  
**Anjel Lertxundi** idazlea  
**Nerea Mujika** Gerediaga elkarteko lehendakari ohia  
**Eider Rodriguez** idazlea  
**Uxue Alberdi** idazlea eta bertsolaria  
**Maddi Kintana** sareetako eduki sortzailea  
**Aner Peritz** bertsolaria  
 ...eta zerrenda luzeagoa

EUSKARAZ BIZITZEKO

# PIZKUNDEA

Abenduaren **27an** **EKITALDIA**  
 BILBAO ARENA · 17:00

Ametz Aranguren · Anari · Ane Labaka · Benitze  
 Edurne Azkarate · Flako Fonki · Gontzal Mendibil · Gorka Urbizu  
 Itziar Ituño · Joseba Tapia · Maia Iribarne · Miren Gaztañaga  
 Miren Narbaiza · Ramon Agirre · Sustrai Collina ... eta gehiago

Sarrerak: [pizkundera.eus](http://pizkundera.eus)

 EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

# BASERRIAK ERRENTAN: dirutan baino jenerotan nahiago

*Gaur egun etxe eta baserrien errenta dirutan ordaintzen da. Banku bidez egin ohi da ordainketa hori, eta orokorrean ez da egoten jabearen eta erreteroen arteko aurrez aurreko hitzordurik. Sasoi batean, ordea, baserrietako erreteroei gauzatan edo jenerotan ordaintzen zituzten errentak; baina ez edonoiz, egun jakinak zeuden-eta garia, artoa, kapoiak eta abarrak eramateko jabeari.*

Lehenago zaharrei entzunda dakigu, garai batean, Mutrikuko baserrietako erreteroei kapoiak eramaten zizkietela etxejabeek; baina ez edonoiz, egun jakin bat egoten zen-eta horretarako: Gabon eguna. Ez zen erregalua, errenta-kontratuak jasotzen zuen baldintzetako bat baizik.

Errenta-kontratuak, batetik, baserriaren ekoizpenaren berri ematen digute, eta, bestetik, errentatzaile edo jabeen beharrezan isla ere badira.

Mende luzez Mutrikuko baserri gehien-gehienak maizterrak izan dira, errentariak. Etxejabeek, gehienetan, baserri bat baino gehiago izaten zuten, eta aldian-aldian eskribauaren aurrera joan eta errenta-kontratu zehatzak egiteaz arduratzen ziren.

Mutrikuko lau baserri hartuko ditugu adibidetzat: Galdoako Maturidi (*Matzuri, Mautzi*), Mijoko Aranaga (*Arana*), eta Ibiriko Irabaneta eta Arribinieta (*Arramieta, Arremieta*).

XVI. gizalditik XIX. gizaldira bitarteko hainbat errenta-kontratu aztertuko ditugu. Kontratu horien iraupenari erreparatuz gero, konturatuko gara kasu batzuetan epea amaitu aurretik, dena delako arrazoiak tarteko, kontratua eten egiten zela eta kontratu berria egiten zutela beste erreteroei batzuekin. *Baserria* esaten diogu gaur egun mendiko etxeari, baina, aspaldiko agirien arabera, horrelakoak “etxeak” (*casas*) baino ez ziren; etxe horietako bakoitzak eraikin osagarriak, lursailak eta mendiak izaten zituen, eta osotasunari “*casería*” esaten zitzaion, baserria edo etxaldea, hain zuzen ere.

## Arribinieta



1688an Migel Anduaga kapitainak 9 urterako eman zien errentan Ibiriko Arribinieta baserria Antonio Bastida eta Gracia Eperola andre-gizonei. Ohitura zen bezala, Domu Santu egunean sartu zen indarrean kontratua. Kontratu guzti-guztiek jaso ohi zuten lehenengo baldintza izaten zen erreteroei baserrian bizi beharko zutela, *aian de haçer su avitacion y morada en la dicha*

*caseria*. Konpromisoa hartzen zuten baserria eta lursailak ondo zainduko zituztela, *aian de regir y tratar bien y suficientemente*. Euren kontura baserri inguruan luberriak egin beharko zituzten, beste era batera esanda lurrak soro bihurtu beharko zituzten, bertan zerealak eta bestelakoak ere inahal izateko. Hori dela-eta lehenengo 3 urteetan errenta txikia ordaindu beharko zuten andre-gizonek: 2 kapoi, Gabon egunean. Kapoiez gain, gainerako 6 urteetan 9 anega gari eman beharko zizkieten etxejabeek, abuztuko Andre Mariaren egunean.

1692. urtean Maria Florentzia Mizkiak, Anduagaren emazteak, 9 urterako eman zien errentan Frantzisko Elkano eta Katalina Garate andre-gizon azkoitiarrei. Urtero 13 anega gari eraman beharko zizkieten etxejabeek herriguneko etxera. Garia Arribinieta lursailetakoa izan behar zen eta kalitate onekoa, *trigo, bueno, limpio, juto y bien acondicionado*. Horrez gain, urtero 2 kapoi eman beharko zizkieten Gabon egunean, gaztanbera bat —*un requeson*— Madalena egunean, eta 4 egunetan lan egin idiekin, soldatarik jaso gabe, *solamente por la comida*. Jabeak karobia errez gero, erreteroei karea baserriaren lursailetan zabaltzeko ardura hartu zuten. Sagastiak eta mahastiak behar bezala zaindu beharko zituzten (azken horretan 12 karga simaur zabaldua), eta ordainetan sagarrak, gaztainak eta bestelakoak erreteroei izango ziren, osorik.

1704. urtean 7 urterako hartu zuten Arribinieta baserria Antonio Agirre Baraikua eta Maria Arrasketa andre-gizonek. Urteko errenta: 14 anega eta erdi gari, 2 kapoi, gaztanbera bat eta 4 eguneko lana idiekin. Horrez gain, baserria behar bezala gobernatzeko, morroi bat hartzeko konpromisoa hartu zuten senar-emazteek: *haian de tomar y tener en su compañía a su costa un criado de toda satisfacion que les sierva y aiude en regir y tratar vien la dicha caseria y su pertenecido*.

1731ko errenta-kontratuak igualtsua da, baina 9 urteko iraupena izango zuen, eta zehazten du erreteroei eman beharreko gaztanbera San Joan egunean eraman behar ziola jabeek. Errenta aldia amaitutakoan, errentaren hasieran topatutako 108 karga simaur utzi beharko zituen erreteroei bertan, baita 2.000 lasto-azao ere, *faxos de paxa*.

1816. urtean Bizente Anduagak 7 urterako eman zien errentan Agustina Gandiaga eta Kosme Goikoetxea amasemei. Aurreko kontratuetan bezala, baserriak edo ustiapenak hobera egitea zen etxejabearen helburuetako bat, eta hori betetzeko konpromisoa hartzen zuten erreteroei: *de cuidar, regir y gobernar la expresada caseria y sus pertenecidos bien y suficientemente y de forma que vaian en aumento y mejoría y no en disminucion y peoria*. Errenta: 10 anega gari (abuztuan), 10 dukat dirutan (Gabon egunean). Gainera, 12 arbola-landare (plantios) aldatu behar zituen urtero: 4 gaztaina, 4 haritz eta 4 sagar-arbola, *quatro de manzanos o frutales*.

1843an Jose Amutxastegik hartu zuen errentan baserria, 9 urterako. Errenta: 14 anega gari, 4 kapoi eta 14 dukat. Ohitura zen bezala, garia abuztuan entregatu behar zuen, eta kapoiak eta dirua Gabon egunean. Urtero 10 arbola-landare landatu

beharra ere jasotzen zuen kontratuak (gaztaina-arbolak, haritzak eta sagar-arbolak).

### Irabaneta

1588. urtean Andres Lopez Hormaetxeak 4 urterako eman zien *Yraebaneta* etxea Pedro Aramaio eta Maria Ramos Korostola suhi-amagarrebei. Urteko errenta: 2 anega eta erdi gari, *seco linpio de manera que se pueda dar a moler*; txerrikume bat, *un puerco nascido por el mes de março o abril*; kapoi bat eta bi gaztanbera. Garia, abuztuaren 15ean eman beharko zioten, txerria Santu Guztien Egunean, kapoia Gabon egunean, eta gaztanberak bata Gorputz egunean eta bestea Trinitate egunean.

1665. urtean Rafael Laka eta Katalina Aldai andre-gizonek hartu zuten baserria 6 urterako. Badirudi garai hartan berritu edo berreraiki zutela baserria, *caseria nueva de Yraebaneta*. Lehenengo 2 urteetan 4 anega gari ordainduko zuten, eta gainerako 4 urteetan, urteko, 9 anega gari (abuztuko Andre Mariaren egunean), anega bat arto (Domu Santu egunean), 2 kapoi (Gabon egunean) eta 4 gaztanbera, egun seinalatuetan, *en quatro dias prinzipales de cada año*.

1689. urtean Pedro Kutunegieta alkateak 9 urterako eman zien errentan Juan Ariztondo eta Emerenciana Bidaburu andre-gizonei. Urteko errenta: 9 anega gari, anega bat arto, 4 gaztanbera, txerrikume bat edo bere prezioa, *un lechon de guia o 16 reales por el*. Etxeko sagarrak erdibana izango ziren etxejabe eta maizterrentzat, eta urtero errenteroak 6 egunetan lan egin beharko zuten bere idiekin nagusiarentzat, *dandole de comer sin mas estipendio*.

1752. urtean Tolosan bizi zen Maria Frantziska Velez Idiakez alargunarena zen baserria, eta errentan eman zien 9 urterako Ignacio Usobiaga eta Maria Iramategi andre-gizonei. Urteko errenta: 13 anega gari, 2 anega arto, 60 erreal eta 2 kapoi. Garia abuztuan entregatu behar zuten, artoa eta dirua Santu Guztien Egunean, eta kapoiak Gabon egunean.

### Maturidi

1691n Joan Galdonarenak errentan eman zien 7 urterako Migel Urkidi eta Maria Goiatz andre-gizonei. Urteko errenta: 5 anega gari, 2 anega arto eta 2 kapoi, *dos capones buenos y bien çebados*. Horrez gain, etxeko sagarrak erdibana etxejabe eta errenteroentzat, eta 3 egunetan lan egin beharko zuten Urkidik nagusiaren esanetara bere idiekin, janaren truke, *tres dias al año a trabajar con los bueyes sin jornal dandole de comer*.

1750. urtean Frantzisko Antonio Galdona alkateak 6 urterako eman zion Maturidi baserria Santiago Gogortza azkoitiarrari. Errenta: 8 anega gari, 2 anega arto, 2 kapoi, 4 lanegun idiekin. Maizterrak 300 arbola-landareko mintegia egiteko konpromisoa ere hartu zuen, horietatik 200 sagar-arbolak izan behar ziren eta 100 haritzak. Etxejabeak eta errenteroak errentamenduaren lehen 2 urteetan 50 gurdikada kare osatzeko besteko karobi bat egin behar zuten etxeko lursailetan zabaltzeko, *para el abono de las erredades*.

1774. urtean Cipriano Miguel Anduagak Antonio Gonzalez eta Maria Teresa Agirre Baraikua andre-gizonei eman zien errentan 9 urterako. Urteko errenta: 12 anega gari (abuztuaren 31n), 2 kapoi (Gabon egunean) eta 2 oilo (San Joan egunean). Idiekin 2 egunetan lan egitea ere jasotzen zen eta beste sei egunetan idirik gabe. Azkenik, 6 haritz edo gaztaina-arbola landatu behar zituen urtero (guztira 54 arbola).

1816. urtean Simon Galdonak hartu zuen errentan baserria 7 urterako. Urteko errenta: 20 anega gari, 20 dukat, *en dinero*

*metalico sonante* (Gabon egunean). Urtero 24 arbola-landare sartu beharko zituen etxeko lurretan: 6 gaztaina-arbola, 6 haritz eta 6 pago, eta 6 sagar-arbola (edo beste fruta-arbolaren bat). Horrez gain, mila arbola-landareko mintegia egiteko konpromisoa ere hartu zuen Simonek.

### Aranaga



Baserri hau, Maturidi bezala, Joan Galdona eta Klara Mizkia Ibarburu andre-gizonena izan zen. 1685. urtean Antonio Kataegiri eman zioten errentan, 3 urterako. Urteko errenta: 8 anega gari, 6 anega arto eta 2 kapoi. Intxaurrak erdibana etxejabe eta errenteroen artean, eta, horrez gain, urtean 6 egunetan joan beharra zuen Kataegik bere idiekin jabeek esandakoak egitera, jornalik gabe, *en lo que se le ordenare solamente por la comida*. 1724. urtean, berriz, 7 urterako eman zioten errentan Ignazio Uria azkoitiarrari. Urteko errenta: 10 anega gari, 2 anega arto, 2 kapoi, 4 egunetako lana idiekin.

1749. urtean Frantzisko Antonio Galdonak 9 urterako eman zien baserria Frantzisko eta Tomas Elkano aita-seei eta azken horren emaztea zen Maria Iretari. Lehen urteko errenta 11 anega gari; gainerako urteetan 12 anega gari, 2 anega arto, 2 kapoi eta 4 eguneko lana idiekin. Etxearekin batera utzitako ganadu txikiko buru bakoitzeko erreal bat ordainduko zioten jabeari; ganadu handiaren irabaziak eta galerak erdibana egingo zituzten etxejabearekin, *a media ganancia y perdida segun costumbre*. Aurreko errenteroak 35 karga simaur utzi zuten elkatonare, eta 9 urteak pasatutakoan eurek ere beste horrenbeste utzi beharko zituzten. Azkenik, errentamenduaren lehenengo 4 urteak pasatu aurretik errenteroek karobi on bat egon beharko zuten Aranagaren lursailak gozatzeko. Lan horren ordainetan Galdonak 6 azunbre ardo emango zizkien. Karobi gehiago errez gero, beste horrenbeste emango zien. Soroak simaurtzea eta itxiturak egitea errenteroen kontura izango ziren, *estercolando y seteando de todo lo necesario*.

1762. urtean Mariana Damiana Arenasek, Frantzisko Antonio Galdonaren alargunak, errentan eman zion baserria 9 urterako Tomas Elkanori. Urteko errenta: 12 anega gari, 2 anega gari eta 11 erreal (11 ardiren korta-sari edo tributuagatik). Sagarrak, intxaurrak eta zumea erdibana etxejabearekin. Horrez gain, 2 urterik behin karobi bat erre beharko zuten karea zabaltzeko soroetan, *una calera, como las que ha acostumbrado hacer hasta aora para dar o echar a las tierras sembradias*.

### Bestelako jeneroak

Errenta-kontratuetan bestelako jeneroak ere jasotzen dira. Gaztainak: 36 *çestas de castaña en herizo* (Zabala, 1633); *dos fanegas de castaña berde* (Galdoa, 1653), gazta: 24 *libras de queso* (Lekonde, 1693), oilandak, aharia...

# ONGI ETORRI ALA ALDE ONDOTIK?

Espainiak, terrorismoaren gorazarrea egitea leporatuta, hamasei lagun auzipetuta dauzka 2022ko martiaren 13an Berangoko Ibai Aginaga preso politikoari ongietorria egiteagatik. Epaitzeko eguna ipini barik dago oraindino. Urte bi edo hiru arteko kartzela-zigorra eskatzen dute bakoitzarentzat. Hori nahikoa ez eta, 75.000 euroko isuna eta hainbat urteko inhabilitazioa ere bai.

Auzipetuek salatu dute eskubide zibil eta politikoak ezabatzeko eta ongietorriak kriminalizatzeko ahalegina egiten dabiltzala; beste bide batzuetatik ez dutela halakorik lortu eta "biktimak umiliatzeaz eta terrorismoaren gorazarrea egiteaz akusatuta" lortu gura dutela. Amnistia eskatzen dute.

Orain dela gutxi, ekainaren 23an, bertan behera geratu zen Kalera Kalera ekimeneko kontrako epaiketa, hor auzipetutakoen defentsak, fiskalak eta akusazio partikularrak akordioa eginda. Euskal preso politikoen harrerak antolatzeaz akusatuta zegoen Kalera Kalera.

Auzipetuek, akordio horren arabera, delitu hauek egin izana onartu zuten kartzela saihesteko: talde kriminal bat izatea, biktimak umiliatzea eta terrorismoaren gorazarrea egitea. Eta zigor hauek ipini dizkiete, besteak beste: urte biko kartzelaldia (ez dute bete behar), isun ekonomikoa eta hezkuntzan jarduteko hiru urteko inhabilitazioa.

Deigarria egiten da zelan onartzen diren Espainiako eta Frantziako estatuek Euskal Herria guztiz asimilatzeko inposatzen dituzten legediak eta zelan uko egiten zaion herri zapaldua altxatzeko eskubideari.

Haien esanetan, dena ETA zelako Garzónen tesia legitimatu du "ezker abertzaleak" hiru auzi horietan, eta bide eman du "Euskal Herriko langileriak eta beste sektore borrokalaria batzuek zapalketa ororen kontra borrokatzeko daukaten eskubidea kriminalizatzeko".



Eta, haiek diotenez betiere, erabaki politiko horiek arrazoitu nahian, ohiko bihurtu da erabakiok bizikidetzaren aldeko ekarpen gisa azaltzea edo auzipetuei entzutea bakea lortzeko edo indartzeko aurrerapausoak direla. "Baina bizikidetzarik (ezta bakerik ere) ez da posible aldean arteko harremana zapalketan oinarrituta dagoenean, hau da, zapaltzaile eta zapalduen artekoa denean. Zapalduak zapaltzailearekin talka ez egiteko bere eskubideei uko egiten duenean, ez dabil bakearen eta bizikidetzaren aldeko ekarpena egiten, baizik eta zapalketa zuritzen du. Zapalketa bera ukatuz, zapalduak haren aurka altxatzeko eskubidea be ukatzen da".

Berangokoek diote euren epaiketan be, gutxieneko eskubide demokratikoak jokoan egonda, ezin dutela onartu hurrengo belaunaldiak kaltetuago lagako dituen akordiorik. Ez ei dabilta diktadura frankistatik datorren Auzitegi Nazionalaren barkamenaren bila; eskubide zibil eta politikoen aitortza eskatzen dute, "absoluzioa delako epai onargarri bakarra".

Dei egiten diegu Euskal Herriko beharginei eta beste herri-sektoreei eskubide zibil eta politikoen kontrako eraso guztien aurrean hausnartu, antolatu eta altxa daitezen.

**Mutrikuko Amnistiaren Aldeko Mugimendua**

**M**utrikuarrek utzitako argazkien liburua. Herritar guztiei erakutsi nahi izan diren argazkiak hartu eta liburuan batuta eskaintzen dira, etorkizunean ere sasoi bateko mutriku eta mutrikuarren oroitzapena gorde dezagun.


**2**025eko urtarrilean argitaratu zen liburua San Tomas egunean berriz aterako dugu plazara, mutrikuarren etxe guztietara eraman ahal izateko, hogeituroren truke, guztion herriaren irudiak etxe guztietan egon daitezen.

**A**urrerantzean ere, mutrikuar, jarraitu ezazu etxean duzun argazki zahar hori mutrikuar guztiei erakusten. Kalaputxi hor izango duzu orri bat zuretzat gordeta.

**A**urretik argitaratutako argazki zaharren liburuak ere eskaintzen dizkizugu jarraiko helbideetan, [www.kalaputxi.eus](http://www.kalaputxi.eus) webgunearen barruan:

**G**ozatu itzazue argazkiak eta haietatik sortutako oroitzapenak.

<https://www.kalaputxi.eus/mutrikuargazkizaharrak>



<https://www.kalaputxi.eus/argazki-zaharrak>

# Ezin da gehiago luzatu.

Gabonak beti dira bereziak: herrikide, lagun eta familiakoekin pasatzeko egunak, gehien maite ditugunak ondoan izateko egunak eta, jakina, falta ditugunak gogoan izateko egunak. Urtero aipatzen ditugu gure etxeetan hutsik geratzen diren aulkiak. Hutsik gelditzen dira batzuk gabonak kartzelan pasako dituztelako, eta beste batzuk biolentzia ezberdinen biktima izan direlako. Aulki hutsak, beraz, gatazkak utzitako ondorioak azalarazten dituzten aulkiak dira.

Sarek urteak daramatza salbuespen politika amaitu eta aulki huts horiek bete daitezten lanean. Batetik, biktima guztiek egia, aitortza eta erreparazioa behar dutelako, hainbeste urte pasa ondoren ezinbesteko urratsa delako. Bestetik, ETAk bere jarduna eten zuenetik 15 urte betetzear daudenean 123 euskal herritar preso ditugulako eta 17 erbestean. 140 aulki huts oraindik ere gure etxeetan.

## HERRIKO HITZORDUAK

- **SANTO TOMAS AZOKA.** Abenduaren 19an, 13:00etan, elizako eskaileretan.
- **GABON EGUNA.** Arratsaldeko 18:30 - 19:30 Olentzerorekin kantaldia Zubixa inguruan.
- **URTEKO AZKEN OSTIRALA.** Abenduaren 26an, 19:00etan, Beheko Plazan.
- **GABON ZAHAR EGUNA.** Abenduaren 31n, 19:00etan, Giza Katea, Goiko Plazatik hasita.
- **URTARRILAREN 10ean, DENOK BILBORA!** Ezin da gehiago luzatu! Autobusa Mutriikutik.

Ondorio horiei guztiei konponbidea emateko mobilizatu izan gara, eta halaxe jarriatuko dugu, bide beretik, mobilizazioak antolatzen. Laster da urteko hitzordurik garrantzitsuenak, izan ere, urtarrilaren 10ean berriro beteko ditugu Bilboko kaleak ondorioak konpontzeko garaia badela aldarrikatzeko. Biolentzia ororen biktimentzako egia, aitortza eta erreparazioarekin batera euskal preso, iheslari eta deportatuak etxeratzeak aukera emango digulako etorkizunari begira jartzeko, elkarbizitarantz bidea egiteko.

Ezin da gehiago luzatu, euskal preso, iheslari eta deportatuak ETXERA! Urtarrilaren 10ean denok Bilbora!

Herrian ere izango ditugu aldarrikapen horiekin bat egiteko hitzorduak.

Zatoz gurekin eta egin indarra, egoera hau gehiago ezin da luzatu eta!



**Konponbidea.  
Bakea.  
Elkarbizitza.**

**MANIFESTAZIO  
NAZIONALA**  
Urtarrilak 10 - Bilbo  
17:00 - La Casilla



## MUTRIKU ETA MUTRIKUARRAK ARGAZKITAN III - atalak

- |                  |                 |
|------------------|-----------------|
| 1. Bistak        | 9. Lagun artean |
| 2. Tokiak        | 10. Jai giroa   |
| 3. Pertsonak     | 11. Musika      |
| 4. Familia giroa | 12. Kirola      |
| 5. Eskola giroa  | 13. Mendizaleak |
| 6. Baserri giroa | 14. UholdeaK    |
| 7. Lan giroa     | 15. Saturraran  |
| 8. Itsas giroa   |                 |

Esker bereziak Iñigo Andonegi zenari, hiru liburu hauek egiten emandako laguntzarengatik eta irakaspenengatik. Bereak ere badira liburuok.



# ...ZORIONAGURRAK...



## ROSA

Kantari Kantari Kantari  
Zorionak gure  
Amonari!!!  
Matxo erraldoi bat  
danon partez!  
Bereziki, Ander, Maddi,  
Eneko eta Einar



## MADDI

Kantari Kantari Kantari  
Zorionak gure  
Maddiri!!!  
8 urte haundi!!!  
Matxo haundi bat  
aita, ama eta bereziki  
Einarren partez!



## JARE

Azaroaren 30ean hiru  
urte bete dituzu handia  
zarela eta familia osoak  
gure sorginari zorionak  
ematen dizkiola  
ZORIONAK JARE



## LIER

Abenduaren 2an 5 urte  
bete dituzu!  
Musu erraldoi bat  
zuretzat etxeko danon  
partez! Asko maite  
zaitugu! ZORIONAK  
LIER



## ENETZ

Zorionak Enetz!  
Etxeko mutil handixak  
9 urte dauaneko!  
Gu prest txokolatadako.  
Matxo handi bat, lera,  
ixiko, osaba, atxona eta  
aumen partez



## MARI KRUZ eta TXOMIN

Zorionak bikote, abenduaren 16an 60  
urte beteko baitituzue elkarren ondoan.  
Ibiritxoko sendiaren partez, maitasunez.



## IBAI

Abenduan 3an  
38 urte ya! Mila zorion  
etxeko guztion partez,  
bereziki Enaitz, Eber,  
Aner, Adei, Danel eta  
Naiane. Aupa zu,  
txapeldun!



## UR

Zorionak Ur! 4 urte  
dauaneko!! Muxu  
potolo bat etxeko  
danon partez!!!



## JARE

Zorionak Jare!!!  
8 urte haundi etxeko  
sorginak! Segi  
zeure bizitxasun eta  
alaitxasun horrekin  
etxe osua dantzan  
ipintzen!!!



## NEREA eta AURO

Zorionak lagunok!!  
Abenduan urte berri bat zakura! Ospatu ere egin  
beharko dugu ba! Saltsa batetik bestera ibiltzea  
ondo dago, baina ea tarte bat ateratzen duzuen!



## ITXASO eta IURGI

Zorionak! Azaroaren 18an 14 urte eta  
abenduaren 24an 9 urte bete dituzue ta!  
Muxu eta besarkada erraldoiak etxekoen eta  
familiarik danon partez! Ondo pasauuuuu!



## LAGUNA

Zorionak lagun!!  
Urtea amaitzear dela  
ospatuko dugu gure  
laguntasuna!

**ZORIONTZEKO eta ARGAZKI ZAHARRAK ERAKUSTEKO**

# aldizkaria@kalaputxi.eus # # whatsapp 635748393 #



Camping   
**Galdona**  
JATETXE ETA ERRETEGIA  
Galdona Baserria  
eguneko menua  
daukagu  
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU



**Joseba Iñaki Eleizgarai**  
**masajista eta osteopatia**

Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

# Orgazki Zaharrak



## 1959 urte inguruan, koadrillan

Atzean, ezker-eskuin: Jose Ignacio «Gaztañegi», Igon Ansola, Txomin «Irabaneta», Juan «Mote», Vitoren «Okelar», Pedro «Arremieta», Asensio «Zabale», Iñaki «Irabaneta».

Aurrean, ezker-eskuin: Salvador Etxaniz, Estanis «Antzomendi», Roman «Okelar», Iñaki «Bidekua».



## 1937 urte inguruan

Amona Jesusa Perez, Maria Jesus Beistegi eta Maria Pilar Urreisti bilobekin.

## ABENDUA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
<b>15</b> Lasuen Ele	<b>16</b> Lasuen Ele	<b>17</b> Lasuen Ele	<b>18</b> Lasuen Ele	<b>19</b> Apraiz	<b>20</b> Apraiz	<b>21</b> Apraiz
<b>22</b> Burgoa	<b>23</b> Burgoa	<b>24</b> Burgoa	<b>25</b> Burgoa	<b>26</b> Zalduegi	<b>27</b> Zalduegi (1)	<b>28</b> Zalduegi
<b>29</b> Apraiz	<b>30</b> Apraiz	<b>31</b> Apraiz				

## URTARRILA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

			<b>1</b> Apraiz	<b>2</b> Lasuen Ele	<b>3</b> Lasuen Ele	<b>4</b> Lasuen Ele
<b>5</b> Zalduegi	<b>6</b> Zalduegi	<b>7</b> Zalduegi	<b>8</b> Zalduegi	<b>9</b> Burgoa	<b>10</b> Burgoa (2)	<b>11</b> Burgoa
<b>12</b> Lasuen Elez	<b>13</b> Lasuen Elez	<b>14</b> Lasuen Elez	<b>15</b> Lasuen Elez	<b>16</b> Apraiz	<b>17</b> Apraiz	<b>18</b> Apraiz
<b>19</b> Burgoa	<b>20</b> Burgoa	<b>21</b> Burgoa	<b>22</b> Burgoa	<b>23</b> Zalduegi	<b>24</b> Zalduegi (1)	<b>25</b> Zalduegi

### EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA

09:00 - 22:00

Larunbat goizetan 09:30-13:00

Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392

Lon Apraiz.....630 055 097

Hiart Burgoa (Deba) .....667 338 890

Amaia Zalduegi (Deba)... .669 262 201

### GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA

22:00 - 09:00

Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30

Isasi 31, 20600 Eibar

### ABENDUA

19	Zabiel	19:00	Kultur Gala
19	Parrokia	19:30	Musika Eskolaren Gabon Kontzertua
20	Herrian		San Tomas Azoka
24	Herrian		OLENTZERO kalez kale
27	Zabiel	20:00	Musika Bandaren Gabon kontzertua
31	Goiko plaza		San Silbestre lasterketa HERRIKOIA

### URTARRILA

1		08:00	ARNOra igoera
18	Nazareno eguna		
25	Zabiel		Saturrarango haitzak
26	Zabiel		Saturrarango haitzak

**aldizkaria@kalaputxi.eus**  
**whatsapp 635748393**  
 urtarrileko aldizkarian  
 argitaratzeko  
 urtarrilaren 9rako  
 bidali zuen mezuak

## ODOLA EMATEA 2025

### abendua 19

otsaila · apirila · ekaina · abuztua · urria · abendua  
 17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan

 Gipuzkoako Odol Emaileak

## MENDI-IRTEERAK 2026

**Urtarrilak 1 URTE BERRIA**

ARNO tontorrera igoera

Ondoren, salda, txorixo eta beste



# 2026

## URTE BERRI ON!

### BISITA GIDATUAK

- Zazpi hondartzak · Mutriku marinela · Olatu planta ·
- Nautilus, Flyscheko fosilak · Arrietakua jauregia ·

Egunak, ordutegiak eta hizkuntza kontsultatzeko:  
 Turismo bulegoan edo [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) helbidean

**EUSKALINPRI**  
 Soluzio grafikoak · Soluciones gráficas

ZURE NEGOZIOA SUSTATZEKO  
 BEHAR DUZUN GUZTIA

NURIA VÁZQUEZ  
 M.659 45 36 57  
[nuria.vazquez@euskalinpri.com](mailto:nuria.vazquez@euskalinpri.com)

T. 943 19 20 36  
[info@euskalinpri.com](mailto:info@euskalinpri.com)

Irudi korporatiboa: logotipo  
 Logotipoa + eskuliburua

Argitalpen grafikoa  
 Katalogoak  
 Kartelak

Offset inprezio lana

Inprezio digitala

# MUTRIKUKO HAURRESKOLA

## MATRIKULA ZABALIK

otsailean hasteko  
urtarrilaren 1etik 10era



*Haurreskola txikia,*

*familia handia*

Hirigibel, 3

943 60 41 19

[mutriku.mutriku@haurreskolak.eus](mailto:mutriku.mutriku@haurreskolak.eus)

[www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus)

Haurreskolak



## BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA



**KANTAURIKO  
ANTXOAK ETA  
BOKARTAK**




**HEGALUZZEA  
ETA  
HEGALABURRA**




**ESKUZ  
EGINDAKO  
KROKETAK**



**BESTELAKO  
GOURMET  
PRODUKTUAK**

 Zuzeneko salmentaren neguko ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera: 9:00-15:00  
Abenduaren 20an eta 27an (larunbatak): 10:00-14:00

 Online salmenta: [www.tiendayurrita.com](http://www.tiendayurrita.com)

sarean edota dendan erosteagatik

**%20ko deskontua**

Zuzeneko salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan, urtarrilaren 31ra arte erabilgarri (kupoi hau aurkeztuz)

Online salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan ondorengo kupoia sartuz: #GABONAK2025

